

Foru Aginduak

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

5879

551/2013 FORU AGINDUA, azaroaren 7koa, onartzen duena bete egin direla Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren uztailaren 24ko 369/2013 Foru Aginduan ezarritako baldintzak, zeinaren bidez behin betiko onartu zen Lantziegoko udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 1. aldaketaren espedientea.

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren uztailaren 24ko 369/2013 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartu zen Lantziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 1. aldaketaren espedientea, Lantziegoko 8 poligonoko 1885 eta 473 lurzatiak berriro kalifikatzeari buruzkoa.

Foru agindu hori betetzeko, ezinbestekoa zen han bertan adierazten ziren aldaketak espedientean jasotzea.

Bigarrena.- Lantziegoko Udalak, 2013ko urriaren 15ean, espedientearen testu bateratua bidali zion aldundiari, betearazi beharrekoa dela adieraz zezan, izapideak egin zitezkeen eta argitara eman zedin.

II.- OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatu da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honakoa

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Betetzat jotzea Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren uztailaren 24ko 369/2013 Foru Aginduan ezarritako baldintzak, zeinaren bidez behin betiko onartu zen Lantziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 1. aldaketaren espedientea, Lantziegoko 8 poligonoko 1885 eta 473 lurzatiak berriro kalifikatzeari buruzkoa.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, hirigintza araudiarekin batera.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta bere aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 7a.- Ingurumen eta Hirigintza saileko diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

LANTZIEGOKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORREN 1. ALDAKETA – ARAUDI ALDATUA

1.5.2.13 artikulua idazkera berria

1.- Komunitate ekipamendu pribaturako azpizona publikoetako eraikuntza baldintzak kasu bakoitzean arautuko dira, antolamendu xehatuko esparruko arau bereziaren eta/edo garapen planeko ordenantzen bitartez, eta, osagarri gisa, kasuan kasuko tresnaren "Kalifikazio xehatua" eta "Eraikuntzaren baldintzak" planoetan jasotako zehaztapenen bitartez.

2.- Halakorik ez balego, hurrengo baldintza hauek beteko dira:

a. Hirigintzako eraikigarritasuna, gehienez:

a.1 Kirol erabilera: 0,70 m²/m²s

a.2 Hezkuntza, aisia, osasun, kultura, laguntza, administrazio arloko erabilerak eta zerbitzu publikoak: 2,00 m²/m²s. (Erlazio honi dagozkio: m² eraiki/lurzati garbiko m²).

b. Aurrealdeko mugen gutxieneko neurriak: lurzati berrien aurrealdeko mugek 25 m izango dituzte.

c. Eraikuntzatik mugetarainoko gutxieneko tartea: 5 m, salbu eta, eraikinaren erabileragatik, mugarekin lerrokatu behar denean, mugakidearen baimenarekin.

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

5879

ORDEN FORAL 551/2013, de 7 de noviembre, aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral 369/2013, de 24 de julio, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, por la que se aprobó definitivamente del expediente de 1ª modificación del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Lanciego.

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Orden Foral 369/2013, de 24 de julio, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo se aprobó definitivamente el expediente de 1ª modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Lanciego, relativa a la recalificación de las parcelas 1885 y 473, polígono 8 de Lanciego.

La ejecutoriedad de la citada Orden Foral quedó condicionada a la introducción en el expediente de las modificaciones que se señalaban en la misma.

Segundo.- Con fecha 15 de octubre de 2013, el Ayuntamiento de Lanciego ha remitido a la Diputación el texto refundido del expediente, con el fin de que sea declarada la ejecutoriedad del mismo y se proceda a su diligenciación y publicación.

II.- FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que se ha dado cumplimiento a las condiciones impuestas en la Orden Foral mencionada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral 369/2013, de 24 de julio, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, por la que se aprobó definitivamente el expediente de 1ª modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Lanciego, relativa a la recalificación de las parcelas 1885, y 473, polígono 8.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA junto con la normativa urbanística.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 7 de noviembre de 2013.- La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

1ª MODIFICACIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL MUNICIPIO DE LANCIEGO – NORMATIVA MODIFICADA

Nueva redacción del artículo 1.5.2.13

1.- Las condiciones de edificación de las subzonas públicas de equipamiento comunitario privado se regularán en cada caso por la norma particular del ámbito de ordenación pormenorizada y/o las ordenanzas del plan de desarrollo correspondiente y, complementariamente, por las determinaciones contenidas en los planos de "Calificación pormenorizada" y de "Condiciones de la edificación" del instrumento correspondiente.

2.- En su defecto, se cumplirá estas condiciones:

a. Edificabilidad urbanística máxima:

a.1 Uso deportivo: 0,70 m²/m²s

a.2 Uso educativo, recreativo, sanitario, cultural, asistencial, administrativo y servicios públicos: 2,00 m²/m²s. (referidos a la relación: m² construidos/m² de parcela neta).

b. Dimensiones mínimas de los linderos frontales: los linderos frontales de las nuevas parcelas tendrán 25 m.

c. Separaciones mínimas de la edificación a linderos: se establece en 5 m, salvo que el uso del edificio haga aconsejable su alineación al lindero, con la autorización del colindante.

d. Lurzati bereko eraikinen arteko gutxieneko tartea: 5 metro.

e. Eraikuntzaren profila edo gehieneko solairu kopurua jatorrizko kotaren gainetik: III/-

f. Sestra kotatik gorako gehieneko altuera: 12 metro erlaitzera eta/edo hegalerara. Lurzatiaren muturrek kota desberdineko bi kaletara ematen badute, sestra behearen duen kale edo espaloitik neurtuko da.

g. Solairuen altuera libreak:

g.1 Gutxieneko altuerak:

i. Beheko solairua: 3,00 m.

ii. Goiko solairuak: 2,50 m

g.2 Gehieneko altuerak: erabilerak eskatzen duena. Muga bakarra aurreko idatz zatian eraikin osorako zehaztutako gehieneko altuera izango da.

g.3 Erdisotoko solairua: kaleko sestratik metro bat gora egingo du gehienez, kaleko edozein puntutan neurtuta.

h. Gainerako parametroak libreak dira.

2.1.1.17. artikulua berria.- LA.17 areako arau berezia (zerbitzu publikoetako sistema orokorra).

1. Antolamenduaren irizpideak eta helburuak.

LA.17 arean komunitate ekipamendua dago: udal biltegia.

2. Egiturazko antolamenduaren zehaztapenak.

a. Lurzoruaren sailkapena: hiri lurzoria.

b. Kalifikazio orokorra.

b.1. Osaera: eremu honetan G7.01 zona dago.

b.2. Erabilera orokorrak:

i. Berezkoa: zerbitzu publikoen ekipamendua.

ii. Bateragarriak: beste edozein komunitate ekipamendu publiko.

b.3. Eraikigarritasuna, gehienez: 1.5.2.13. artikuluan "Eraikuntzari dagozkion baldintza orokorrak" ezarri da.

c. Antolamendua garatzeko araubidea: antolamendu xehatua plan honetan dago.

3. Antolamendu xehatuaren zehaztapenak.

a. Hiri lurzoruaren kategoria: urbanizazioaren bidez finkatutako lurzoria.

b. Kalifikazio xehatua.

b.1. Eremu honetako kalifikazio xehatuaren azpizifikazioa "P4. Kalifikazio xehatua" planoan jasota dago.

b.2. G7.01 azpizonan aplikatu daitezkeen erabileretarako eta gainerako baldintzetarako, hauek beteko dira: 1.5.2.13. artikulua "Eraikuntzari dagozkion baldintza orokorrak" eta 1.5.2.14. artikulua "Erabilere buruzko baldintza orokorrak", berezitasun hauekin:

- Erabilera bateragarri gisa, beste edozein komunitate ekipamendu publiko erabil daiteke.

- Mugetarainoko tartea 3 m, salbu eta, eraikinaren erabileragatik, mugarekin lerrokatu behar denean, mugakidearen baimenarekin, kalera zein espazio publikora lerrokatu daitekeelarik.

d. Separaciones mínimas entre edificios situados dentro de la misma parcela: 5 metros.

e. Perfil de la edificación o número máximo de plantas sobre cota de origen: III/-

f. Altura máxima sobre cota rasante: 12 metros a la cornisa y/o al alero. Se medirá desde la calle o acera de rasante inferior, en las parcelas en que sus extremos den a calles de diferente nivel.

g. Alturas libres de pisos:

g.1 Alturas mínimas:

i Planta baja: 3,00 m.

ii Plantas altas: 2,50 m

g.2 Alturas máximas: las demandadas por el uso con el límite de altura total del edificio, señalada en el apartado anterior.

g.3 Planta semisótano: no podrá exceder 1 m. sobre la rasante de la calle en cualquier punto de ésta.

h. El resto de parámetros son libres.

Nuevo artículo 2.1.1.17.- Norma particular del área LA.17, Sistema General de Servicios Públicos.

1. Criterios y Objetivos de Ordenación.

El área LA.17 corresponde al equipamiento comunitario: almacén municipal.

2. Determinaciones de ordenación estructural.

a. Clasificación del suelo: suelo urbano.

b. Calificación Global.

b.1. Composición: este ámbito contiene la zona G7.01.

b.2. Usos globales:

i. Característico: equipamiento de servicios públicos.

ii. Compatibles: cualquier otro equipamiento comunitario público.

b.3. Edificabilidad máxima: la señalada en el artículo 1.5.2.13. "Condiciones generales referentes a la edificación".

c. Régimen de desarrollo de la ordenación: la ordenación pormenorizada está contenida en este Plan.

3. Determinaciones de ordenación pormenorizada.

a. Categorización del suelo urbano: Suelo consolidado por la urbanización.

b. Calificación pormenorizada.

b.1. La subzonificación de la calificación pormenorizada en este ámbito está contenida en plano "P4. Calificación Pormenorizada".

b.2. Usos y demás condiciones aplicables en la subzona g7.01: se estará a lo establecido en los artículos 1.5.2.13. "Condiciones generales referentes a la edificación" y 1.5.2.14. "Condiciones generales referentes a los usos" con las siguientes peculiaridades:

- se permite, como uso compatible, cualquier otro equipamiento comunitario público.

- la separación a linderos se establece en 3 m salvo que el uso del edificio haga aconsejable su alineación al lindero, con la autorización del colindante, pudiendo alinearse a calle o espacio público.

Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

5862

Diputatuen Kontseiluak 2013ko azaroaren 19ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena.

- Foru dekretua:

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

40/2013 Foru dekretua, azaroaren 19ko Diputatuen Kontseilua-rena, aldatu egiten dituen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak.

Anuncios

SECRETARÍA GENERAL

5862

Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión ordinaria celebrada el 19 de noviembre de 2013.

- Decreto Foral:

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

Decreto Foral 40/2013, del Consejo de Diputados de 19 de noviembre, que modifica los porcentajes de retención aplicables a los rendimientos de trabajo en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.